

## ISILTASUNEAN LAGUN

Olaia Gerendiain Ruiz de Gauna

*Pasai Antxo*

*Sinetsaraz iezadazu beste behin ez dela munstrorik nire ohe azpian. Abes iezadazu sehaska-kantarik samurrena. Konta iezazkidazu loarazten zidaten printzesa-  
ipuin amaigabeak. Opari iezadazu goizero esnatuko nauen musurik goxoena. Gogora ekar iezadazu zelako barregura sorrarazten zidan ileorde gorri hark. Esadazu zilegi dela lapurrari lapurtzea. Emadazu nire negar zotinak baretzeko gai izango den besarkadarik estuena. Dei nazazu nire izenaz. Esadazu alaba.*

– Berandu da dagoeneko, ama

Isiltasuna. Hodeietan murgildutako begirada galdua. Leihoa ixten dut, hotz da. Kanpoaldeko iluntasunak zure begi beltzen isla dirudi. Gurpila bultzatu eta logelara goaz. Imintzio handirik egin gabe zutitu eta ohean etzaten zara, gorpu hil baten antzera maindireen gainean pausatuz. Egunero lez, minutu pare batez itxaroten dut argiak itzali aurretik, gaurkoan desberdina izango delakoan, hitz bakarren bat oparituko didazulokan. Eguneroko erantzuna: isiltasuna, zure pentsamendu ooren zaindari, edo kartzelari; auskalo.

\* \* \*

Leiho irekiko zirrikitutik sartzen den aire izoztuak esnarazten nau. Bart irekita utziko nuen ohar-kabea, nekearen ondorio. Nire oin biluziek zorua hotz nabaritzen dute. Bat, bi, hiru... zazpi pauso. Zure logelara heltzen naiz, eta jakin badakit jaikia zarela dagoeneko, esnatu nauen hotz berbera suma baitezaket nire gorputza laztanduz. Ohiko begirada galdua, eguzkirantz gaurkoan. Leioa pixkanaka itxi eta eskua hartzen dizut. Neguko hotza barnean daramazu. Nire buruari galdetzen diot nola ote den gai zeurea bezalako gorputz ahula kanpoaldeko haize izoztua jasateko. Denborarekin ohitua naiz jada.

Esne hutsa gosaltzeko, epela. Esfortzu handirik gabe amaitzen duzu. Errutina. Pilula bat, bi, hiru.

*Sinetsaraz iezadazu, amatxo, sukarra baretzeko pilula "magikoa" hartzen ez badut otsoa agertuko zaidala gauean. Konta iezadazu nola pilula horrek indartuko nauen. Opari iezadazu txokolate pusketa bat botika nazkagarria irentsi eta berehala. Gogora ekar iezadazu nola egin genituen elur-panpinarik maitagarrienak. Esadazu bihar kemen, indar eta adorez jantzita jaikiko naizela goizean goiz. Emadazu sendatuko nauen edabe sekretua. Dei nazazu nire izenaz. Esadazu alaba.*

Hutsik dago parkea. Goiz da. Haize hotzak bortizki harrotzen ditu orbelak. Bortizki harrotzen du zure ilea ere. Bortizki harrotzen du haize hotzak gaur goizean goizeko udazkena. Lehen txolarreak hurbiltzen hasten dira gure bankura. Ogi-mamien-

gatik borrokan hasten dira, garrasi egiten diote elkarri. Txoriño arinena da garaile, indartsuena, bizkorrena.

*Sinetsaraz iezadazu, egin ohi zenuen antzera, aitak ez duela uste ahul, makal, pittal eta motela naizenik. Konta iezadazu hain sinesgarri margotzen zenituen gezur horietako bat. Opari iezadazu zapladatxo bat bizkarrean nire nahigabea arintzeko hitzik aurkitu ez duzulako. Gogora ekar iezadazu zenbat maite nauen aitatzok. Esadazu bere hitzak ez datozela bat benetan pentsatzen duenarekin. Emadazu irabazi izan ezin nuen urrezko domina aitak nahi zuen txapelduna bilaka nazan. Dei nazazu nire izenaz. Esadazu alaba.*

Ia ispilura begiratu gabe margotzen dituzu ezpainak. Perlazko lepokoa. Sekula erantzi ez duzun ezkontza-eraztuna. Karminezko azkazalak. Laurogeita hiru urteetako lan akigarriak zigortutako eskuak. Adorearen isla garden diren begi ilun bezain itzaliak. Keinuz jantzitako aho mutua, memoriaren gatibu diren hitzen gordailu; isiltasunaren konplize; zugandik etorritz oraindik ere hain ezezagun dudan isiltasun hori.

\* \* \*

Egun bat gehiago. Edo bat gutxiago. Norberaren arabera. Ohiko ibilbide bera. Ohiko konpainia. Zu nirekin. Ni zurekin. Bakardadea.

Ahoa zabaltzen duzu. Hotzikara arrotz batek bihurritzen dizkit giharrak. Odolaren bor-bor beroa. Bihotz taupadak urduritu egiten dira nire

barnean, inpazientziaz itxaroten diote zure ahotik ateratzear dirudien barbari.

Bat-batean, itotzear dagoenak hartzen duen arnas hartze luze bezain mingarria, baina hitzik ez. Ahoa itxi eta bideari ekiten diogu. Diot. Zure aulkia bultzatuz. Amorruez.

Etxeko berotasuna lagun, egongelan eseri eta gustukoen zenuen argazki-albuma jartzen dizut eskuartean, betiko lez. Nik, aldiz, telebista piztu eta bertako irudiei so egiten diet, ikusi gabe, begirada harantz zuzendu besterik ez; tramankuluaren bolumena apurtxo bat igotzen dut etxeko isiltasun jasangaitza haustearren, norbaiten hitzak entzutearren. Zuk, aldiz, arreta handiz erreparatzen diezu izoztutako irudi zuri-beltzei, edo hala dirudi behintzat.

Zazpigarren orrialdera zuzentzen zara, oraindik ulertzea lortu ez dudan eguneroko arrazoi berberagatik. Bertako argazki zimurtu eta txikiena laz-tantzen duzu. Bostok gara. Gogoan dut egun hura; alboko herriko azokara joatekoak ginen eta zuk errieta ederra bota zenien nire bi nebei argazkirik atera nahi ez zutelako, artean aitona begira genuela botoia sakatzeko zain, ohiko amorru begirada gogor eta aldi berean samurrarekin. Liskar horren ondorio dira bai Mikelen kasketa aurpegia bai Keparen oilarkeria pintak. Aitak, aldiz, aitonaren seriotasun berbara islatzen du, igandeetako traje dotorea soinean duelarik. Oroitzen dut aitonak botoia sakatu aurretik esan zenizkidan azken hitzak: hankak itxi itzazu neskato! Berba horien

ondorio ene gogaitu aurpegia, aitarenaren alboan, irribarre erdi batekin apainduta. Eta azkenik zu, argazkia argitzen duen eguzki-izpi bakarra. Egun hartan zeneukan poztasunaren adierazle garden. Zure ohiko edertasunaz zuri-beltzeko paper zaharra koloredun bilakatuz, egunik ilunena ere apurtxo bat apaintzeko gauza zen irribarre horrekin. Geure alaitasun guztien sortzaile zen irribarre hori. Sinets iezadazu ama, ene arima ere oparituko nukeela diotsudanean, argazki horretan zinen hura buelta zedin.

Zure begietan ikus dezaket zeuk ere gogoan duzula igande goiz hura. Medikuek diote ezinezkoa dela, baina nik jakin badakit baietz, zure oroitzapen sakonenetan giltzaz gordeta duzula egun hartako udaberri usaina, eguzkiaren berotasuna, zure zetazko soineko gorria. Badakit oroitzen duzula argazki hartako aurpegi bihurridun hiru gaztetxoak zure seme-alabak zenituela, nahiz eta argiegi ez daukadan igande goiz hartako argazki horretan aita eta zeure artean zenuen neskatoa gaur orain alboan izaten jarraitzen duzun hau denik.

*Sinetsaraz iezadazu, askotan egin izan zenuen moduan, beti izango naizela zeure bihotzeko kuttuna. Konta iezadazu nola etorriko zinen ene eta nire ustezko senarra izango zenaren etxera, zeure bilobak bisitatzera. Opari iezadazu bizitzen jarraitzeko indarrak emango dizkidan itxaropen dosia. Gogora ekar iezadazu nola haztean pirata izango nintzela amestu ohi nuen. Esadazu geure sekretua izango dela bizilagunaren kanarioa kaio-*

*latik askarazi genuenekoa. Emadazu konplizetasun zintzoenaren aitorle izango dudan bostekoa. Dei nazazu nire izenaz. Esadazu alaba.*

Gau erdian iratzartzen naute zure ahotsek. Zure ohe alboan pausatu eta eskua heltzen didazu. “Gogoratzen zaitut, laztana” diostazu. Bat-batean ene malkotan itota ikusten dut neure burua. Ulergaitzak zaizkidan hitzekin jarraitzen duzu hizketan, zure begirada ene begietatik aldendu barik. Malkoek itsaso bat sortu dute ene inguruan. Zugandik aldentzen ari naiz. Garrasi egiteko erregutzen dizut, ezin baitzaitut aditu. Hainbeste denboran zehar itxarondako hitzak hondoratzen ari dira itsaso amaigabe honetan. Zeuregana igeri egiten ahalegintzen naiz. Zeuregana ihes egiten, baina zeuregandik ihes egitea besterik ez dut lortzen. Itotzen ari naiz. Hitzak. Zeure begirada sarkorra. Oroitzapenak. Alzheimerra. Beldurra. Borroka. Gerra. Tiroak.

Izerditan blai esnatzen naiz. Amesgaiztoa. Beste bat... Badirudi gaurkoan ere, nire antzera, zure gau-mamuek ez dizutela tregoarik eman behar. Negarrez ari zara. Bat, bi, hiru... Zazpi pauso zure logelara arte. Laztana! diozu. Ene izena entzutea iruditzen zait. Kontuz...! Korri, korri, korri. Eskua estutu eta berehala lasaitzen zara. Begiak ireki eta niregana zuzentzen duzu oraindik amesgaiztoaren efektupean dagoen begirada izutia. Ez dakit garbi benetan esna ote zauden edo begiak soilik dituzun iratzarririk.

\* \* \*

Begira geratzen natzaizu, azken urteotan hain maiz egin izan dudan moduan. Haur batek bere panpinarik kuttunena begiratzen duen samurtasun berberaz. Basamortuan galduriko ibiltari ahitu batek putzu txiki baten lilurapen itsua begiratzen duen itxaropen-begi berberekin. Gizon batek bere nerabetako amodioa hogeitau urte beranduago ikusten duenean sentitzen duen zirrara berberarekin.

Begira geratzen natzaizu, alaba batek senarra goizegi galdutako ama gaixoaren begirada itzalia behatzen duen moduan; gerrak erauzirik, bi neba bakarrak galdu dituen baten antzera begira geratzen natzaizu, neuk barnean daramadan samin horren konplize zaitudanez gero, nahiz eta, beharbada, zeuk jakin ez...

Gaurkoan hodeietan murgildutako begi galduen testigu nauzu. Gaitzak zimeldutako gorputz inerte baten lagun. Bihotza taupadaka sentitu ahal izanak bizitzearekin zerikusirik ez duela frogatzen duenaren lekuko.

Sarritan entzun ahal izan dugu oroitzapenez gaudela eraikirik, eta, zer da ba, oroitzapenik ez duenaren bizia? Nola jasan, zeure barnean eraman izan duzun alaba, hezi duzuna, hazten ikusi duzuna, nor den ez jakitea? Nola egin aurre egunerokotasunari, goizero esnatzean non zauden jakiteko gai ez bazara? Nola pairatu ispilura begiratzean zeure isla ezezagun izatearen mina?

Xuxurlatuko nizkizuke, amatxo, soilik biok noiz-bait jakin izan genituen sekreturik ezkutuzkoenak, behin izan zinen moduan, nire konplize bilakatuz zu. Esango nizuke, ispiluaren aurrean antzeman ezin dezakezun emakume hori, inoiz ezagutu dudana ausartena duzula, bere kabuz, ia bakardade osoz, hiru deabrutxo hezteak lortu zuen berbera.

Aitortuko nizuke miresten zaitudala, ene bizitza guztian zehar miretsi izan zaitudala, izan zarela ene eredu bakarra. Irakasle, kontseilari, adiskide, etsai, errietagile... Ene mukizapi eta sorbalda sendo egunik zailenetan, eta nire poztasunik sakonenen lekuko eguzkiak gogor jotzen zuenetan.

Eskerrak emango nizkizuke ene ametsak zure bilakatu izanagatik, beste inork maite izan ez nauen antzera zeuk soilik egin izanagatik. Zeure denbora leialtasun handienaz nigan inbertitu izanagatik. Milioika aldiz emango nizkizuke eskerrak, gaur egun naizen hau sortu izanagatik. Eta beste esker anitz emango nizkizuke infinitu gauzengatik...

Emango nizkizuke, bihar esnatzen zarenerako ene aurpegia zurea duzun bezain arrotz izango duzula jakingo ez banu. Beraz, niretzat gordeko ditut gaurkoan ere ene pentsamendu eta oroitzapenik sakonenak, zuk, nahiz eta ez apropos, azken urteotan egin izan duzun antzera.

Eta bihar jaikiko naiz, egun berriak ekarriko didana deskubritzeko zirrara txikiena ere galdurik, esperantza apur batek aurrera jarraitzera bultzatzen nauen artean.

*Noizbait, ene ohe azpian munstrorik ez dela sinetsarazteko gai izango zarelakoan, sehaska-kantarik samurrena abestuko didazulakoan, loarazten ninduten printzesa-ipuín amaigabeak kontatuko dizkidazulakoan, goizero esnatuko nauen musurik goxoena oparituko didazulakoan, gogora ekarriko didazulakoan noizbait, zelako barregura sorrarazten zidan ileorde gorri hark. Esnatuko naiz, esperantza txikienarekin, lapurrari lapurtzea zilegi dela gogora ekarriko didazulakoan, eta ene negar zotinak baretzeko gai izango den besarkadarik estuena emango didazulakoan.*

*Bihar ere esnatuko naiz, noizbait, ene izenaz deituko didazulakoan, alaba esango didazulakoan.*